

**MINTZOLA**  
Ahoa Bete Hots jardunaldiak  
2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

**KANTUA ENTZUN; ENTZUNA KANTA<sup>1</sup>**

**Amaia Zubiria**

- **Ahozketasunaren transmisioaren garrantzia.** Nik transmisio zuzena jaso nuen arren ez nintzen bere garrantziaz berehalakoan jabetu. Lotsatu egiten ninduen ikasten nituen kantu, bertso, esaera zahar eta gainontzekoek; zentzu “baserritar” mesprezagarriz ikusten baitziren garai haietan kontu horiek guztiak, hots, euskaratik zetozenak. Kilometro bat egin besterik ez zen behar, norbera kaletar kultua ez zela ohartzeko. Eta nik berriz, kalekumea izanagatik, baserri mundu txiro harekin lotzen ziren altxor horiek guztiak nituen atsegin, gaur aberastasuna iruditzen zaidan, txirotasun hura. Altxor horiek guztiak ukatzen eta ezkutatzen saiatu nintzen. Eta horrek denbora luzez, Gartzia esango lukeen bezala, “inon inongoa” bihurtu ninduen.
- **Zer eta nola transmititu den ahazketasuna.** Ama hitzuna eta argia genuen. Ni zortzigarrena nintzen senideetan. Eta on eta txar dezente jaso naiz. Ikasiak ditut mintzoak: mozkeriaren ondorioaren mintzoak; gorroto eta tratu txarrenen mintzoak; maitasunaren mintzoak; ulertzen ez nituen imintzio eta keinuak, euskaratik erdarara zihoazenak.  
Euskaraz sortu ginen, euskaraz transmititu gintuzten baina erdarara gindoazen; handia izateko erdaraz jakin behar zen, erdal kulturaz jabetu beharra zegoen, meritu bat zen gainera jabetze hori. Hala ere, sukaldeko beroan plazer handiz entzuten nituen Bilintx, Peio Errota, Txirrita, Xenpelar, euskal kantuak... Baina une berean, amorru handiz bazen ere, erdaraz jasotzen saiatzen nintzen, eta lortzen, besteak bezain jakintsu, fina, eta modernoaren itxura eta ustea. Eta horrela bizi ginen; uste horretan.

Berantago lagun eta maitaleengandik jaso nituen arrotzak zitzaizkidan erromantzeak. Horiei esker hasi nintzen nire-nireak ziren aztarnak errekonozitzen, onartzen eta maitatzen. Eta geroago hasiko nintzen nire sorkuntza sumatzen; geroxeago ausartuko nintzen “izaten”: nire egonezinak, kontzeptuak, maitasunak eta gabeziak sinpletasunean adierazten. Ordurako ezagutzen baintuen idazle, sortzaile famatuak, gizonezko oso-osoak gehienak, eta emakumezko batzuk ere. Haiek bai poesia ederra! Haiek bai osatua! Haiek bai bazekiten zer egiten ari ziren, eta haiei bai ez zitzaieela gustatzen nik esaten nituen gauzak eta nola esaten nituen gutxiago. Eta hala eta guztiz ere, auskalo nondik atera nuen horretarako adore hura, azkenean lotsa galdurik, nintzena onarturik, zuzentzeko, aberasteko... Eta horretan ari naiz oraindik ere.

---

<sup>1</sup> Ahoa Bete Hots jardunaldietan emandako hitzalditik transkribatutako pasarteak dira hauek.

- Transmititu zaizkidan ipuin, kantu, bertsoak gehienak gustatu zaizkit. Hasieran oso sinpleak iruditu zitzaizkidan, baina ez genuen beste deus ezagutzen. Oso moralistak ziren, gai berririk gabe, baina edozer zitzaigun harrigarri. Eskoletako antzerki xume moralista hori zen nagusi, baina euskaraz gozatzeko aukera ematen ziguna. Ezin zen dena derrepente hautsi eta berritik hasi. Gure elizkoitasuna oso erratua zegoen, moralak zuzentzen zuen dena, mozten, eta bizitzen uzten ez zuena. Adorea gauza askotako behar izaten zen: gure kultura onartzeko eta gero hura aldatzeko, eraldatzeko. Ipuinak eta kantuak moralinaz beteak ziren, bazen mezu bat azkenean. Eta guk horrekin hautsi nahi genuen, eta hala egin genuen, nahiz gure gurasoentzat mingarri izan. Gure gurasoentzat ere oso gogorra izango zen hango lege eta arauak ezin hautsi hori.

Emakumeak kantuan orduan ñoñoegiak ginen; garai hartan nola geunden jakin behar zen! Zer zen garai hartan emakume bat plazaratzea? Fama txarra suposatzen zuen... denoi datorkigu burura “adjektibo” hori... Emakumeak ez zuen eskubiderik plazaratzeko; kosta ahala kosta irabazi den eskubide bat izan da. Batzuek larrutik ordaindu dute, eta fama txarra hartuta betirako. Baina fama zertarako? Baina berdin zuen, ideiak plazara atera beharra zegoen. Ez dugu ukatu behar nondik atera garen, nolakoak ginen, eskatzen zitzaigun xumetasuna... Ama birjinak izan behar genuen... horrek karga handia zuen. Ateratzen bazinen izan behar zenuen “gizon epaileak” onartuko zuen irudi hori. Batzuetan ez ginen irudi hori. Gizonak askotan zuen emaztea eta emazteak izan behar zuen “nire amak” bezala... Emakume bat plazan eta... “ez al du lotsarik edo?” Lotsa horiek deuseztatzen denbora pila pasa genuen, justifikatzen... Lotsa hori galtzen duzunean besteen errespetua ere galtze duzu. Baina beste errespetu bat lortzen duzu, irabazten duzu. Banekien pertsona bezala entzuten nindutenean beste kontu bat izango zela, baina gutxienetakoa nintzen hori pentsatzen zuena, inork ez zuen horren alde apustu egiten. Emakumeak lotsa galtzean jende aurrean ez zuen ezer merezi, hori zen pentsamendu dominantea. Bizipen hori ere transmisioa da, hori transmititzen saiatu naiz neskei. Lehen emakumea zen emakumea, eta gizonak pertsonak. Emakumea zen loretxo bat, printzesa bat, ama eder bat, bazkari goxoak egiten zituena... Hori dena apurtzen pasatu genuen denbora asko. Niretzat hori da transmisiorik garrantzitsuena.

Gaurko gazteak hain formatuak izanik, barrurago ez begiratzeak min ematen dit. Sorkuntzan ari denak ez du konformatu behar emakume bat ateratzearekin. Emakumeak gara gizonak adina edo gehiago, baina gero ez da hori azaltzen ageri diren lanetan, lan kopuruetan... Zer gertatzen da hor?